

# EPIDEMIAK EUSKAL HERRIAN

## Anton Erkoreka

Medikuntzaren Historiaren Euskal Museoko Zuzendaria

Epidemiologia historikoak osasun arazoen denboran eta espazioan zehar eduki izan duten frekuentzia eta banaketa ikertzen du. Ez da soilik “epidemia” deritzogunera mugatzen, gaixotasun guztiak hartzen baititu barne. Epidemia hitzaren jatorrizko esanahia, “populazio guztiari eragiten dion gaixotasun”tzat hartuta, “gaixotasun sozial”arenarekin bat dator funtsean. Gaur egun Gaixotasun Sozialaren daukagun kontzeptua hauxe da: hilkortasun eta morbiditate tasa altuak daukana, ondorio sozioekonomiko, politiko edo kultural larriak eta iritzi publikoa arduratzen duen gaixotasuna.

Euskal Herriak Erdi Arotik hona jasan izan dituen gaixotasun sozial edo epidemiak landuko ditugu, gure historiako aurretiko garaietaz informazio gutxi daukagu eta.

Gaixotasunen historiaren ezagutza, gaur egungo egoera hobeto ulertzen laguntzeaz gain, tresna baliogarria da etorkizuneko gaixotasunek izan dezaketen bilakabidea hobeto ulertzeko. Batez ere historian zehar, gaur egunera arte, egon diren heriotzaren zergatia garrantzitsuenen kuantifikazioan sakonduko dut.

## **Pestea (XIV-XVIII. mendeak)**

Gure Aroaren hasieran eta aurretiko mendeetan, mundu mediterraniarrean ez zen epidemia handirik ezagutu, eta faktore honek populazioaren igoera garrantzitsu bat ahalbidetu zuen. II. eta III. mendeetatik aurrera igoera demografiko hori moteldu egin zan, arrazoia: Biruela edo nafarriak, elgorriak, paludismoak, legenarrak eta, VI. mendean Europa astindu zuen lehen epidemiak, “Justinianoren pestea” edo “Justinianoren Izurritea”k. Pestearen eragina inperio bizantziarrean eta latinar munduan ikaragarria izan zen, 542. urtean, adibidez, Constantinoplaren populazioaren %33-50 bitartean hil zuen. Kontinentean zehar hainbat agerraldiren ostean, gure herria ere barne, izurritea VIII. mendean desagertu zen Europatik.

Europar populazioa 1000. urtean hasi zen haunditzen, baina XIV. mendearen hasieran aldaketa klimatiko bat eman zen, batzuek “Aro glaziar txikia” deitu dutena, XVII. menderarte klima hotz eta euritsua egotearen arduradun izan zena. Aldaketa honekin batera “peste beltza” edo “izurrite beltza” agertu zen; Itsaso Beltzaren ertzean azaldu zen lehenengoz 1346an, eta 1348. urte hasieratik Europa osora zabaldu zen.

Nafarroan kontserbatu diren iturri dokumental aberatsek, Berthekek eta Monteanok ikertzaileak erabili dute epidemiaren garapena erreinu zaharrean zehar erakusteko. Hauek diotenez, epidemia Frantziatik sartu zen Nafarroan, Santiagoko bideari jarraiki. Gipuzkoa eta Bizkaiko kostaldeetatik ere hedatu zen Galiziara iritsi arte. Izugarria da

zein arin zabaldu zen eta eragin zuen itzelezko hilkortasuna. Berthe<sup>1</sup> “hekatonbe” hitza erabiltzen du Nafarroan gertaturikoa azaltzeko, “l’implacable association, au cours de l’épidémie, de la faim et de la peste”, hilkortasuna %40 eta 50 inguruan kokatuz. Monteanok<sup>2</sup>, ikerketa zehatzago batean, %50etaz hitz egiten du: “Navarra vio desaparecer a más de la mitad de su población” diosku. Benedictow-ek<sup>3</sup> gai honetaz idatzi duen azkeneko liburuan, Europa osoa kontutan hartuz, Nafarroako Erreinurako %60-65eko hilkortasunaz hitz egiten du. Larregizkoa deritzot zifra hau, eta beraz Monteanok dioen %50arekin geratuko naiz.

XIV. eta XVIII. mende artean gure herrialdeko osasun arazo nagusia izurritea izan zen. Lurralde osoan edo eskualde eta herri zehatzetan epidemiak agertzen ziren aldizka hilkortasun tasa aldakorrek eraginez, baina beti ere 1348ko lehen agerraldi horrena baino baxuagoak. Pesteia Europatik 1720. urtean desagertu zen berriro, Marsella eta Provenza astindu zituen azken piztualdi baten ostean.

### **Biruela (XVIII. mendea)**

XVIII. mendea oparotasun handiko garaia izan zen, gorakada demografiko garrantzitsua eman zuena. Euskal Herriko udalerrri gehienetan populazioa bikoiztu egin zen, azken hamarkadan soilik motelduz guda eta epidemien eraginez.

Baskongadako Elkartearen Aktetan biruela edo nafarrerri epidemiei buruzko informazioa aurki dezakegu, eta baita 1770<sup>4</sup>. eta 1771. urteetan gure artean inokulazio edo bariolizazioa hasi zenekoa ere, Peñafloidako kontearen semeari eta beste zortzi umeri ipini zitzaientean. Biruela eta elgorria entitate nosologiko bakartzat zeukaten eta XVIII. mendean zehar umeei bereziki eragin zien epidemia larrien arduradun izan ziren. Ez daukagu informazio nahikorik Euskal Herrian eragin zuten hilkortasuna zehazteko, baina gure inguruko datuen arabera, epidemietako batzuk %15 inguruko hilkortasuna izan zutela esan dezakegu.

### **Tifus exantematikoa Konbentzio Gerran (1793-1795)**

Tifus exantematikoa gudarosteekin batera joan izan da gerra guztietan, kanpaina militarretan hilkortasun handia eraginez, Errusiako Napoleonena kasu. Irlandako 1846ko gosetearekin ere harremandu izan da. Historian zehar heriotz gehien eragin dituen gaixotasuna izan da, izurriteak berak baino gehiago.

Euskal Herriaren muga-herri egoerak hainbat epidemia jasanarazi dizkio, Konbentzio gerran gudaroste frantsesarekin gertatu zen moduan, edo Legio Laguntzaile Britainiarrarekin Gasteiz-en 1836an.

Konbentzio Gerra 1793an hasi zen, hurrengo urtean gudatalde frantsesek Gipuzkoa osoa eta Bizkaia, Araba eta Nafarroako zati bat hartu zuten. 1795eko uztailean Basileako ituna sinatu ostean, Bidasoako iparraldera aldendu ziren berriz ere.

---

<sup>1</sup> BERTHE 1984, 326.

<sup>2</sup> MONTEANO 2002, 42-44.

<sup>3</sup> BENEDICTOW 2006, 273-284 ta 383.

<sup>4</sup> THILLAUD 1983, 138.

Gerra honetan ibilitako gudataldeek orduko garaiko dokumentuetan “fiebres pútridas” edo “fiebres malignas” deituriko epidemia bat jazan zuten, %5eko hilkortasuna eduki izan zuena.

Biztanleria zibilak ere “sukar ustel edo gaizto” hauek pairatu zuen, eta militarrek baino modu larriagoan gainera<sup>5</sup>. Epidemiak sortutako hilkortasuna Gipuzkoako biztanlerian argi isladatzen da, 1787. urtean 114.304 biztanle izatetik 1799ko zentsuan 104.479 izatera pasatu zen. 10.000 biztanleko jeitsiera honek populazioaren ia %10 suposatu zuen.

### **Kolera (XIX. mendea)**

Asiar kolera endemikoa izan da Indian, baina XIX. mende hasieran mundu osoan zehar zabaltzen hasi zen, zazpi pandemia handiren arduradun izanik gaur egunerarte. Lehenengoa (1817-1823) Mediterraneo ekialderarte baino heldu ez bazen ere, bigarrenak (1827-1834) Europa osoa astindu zuen, Frantziara 1832an iritsiz eta Iberiar Penintsulara 1833an. Hirugarrenak (1839-1859), laugarren mantsotu batek (1863-1874) eta bosgarren pandemiak (1881-1896) ere gure lurraldeak ukitu zituzten, oso modu desberdinean baina.

1833ko epidemia Portugaletik sartu zen. Lehengoz Galiziara hedatu ostean, Extremadura, Andaluzia, eta ondoren herrialde osotik zabaldu zen, karlisten kontra borrokatzeko euskal probintzietara bidali ziren tropen mugimendurekin. 1834an Bartzelonatik sartu zen bigarren uhin epidemiko bat, ondoren mediterraniar zonalde osoan zehar hedatu zelarik.

Nadal-ek<sup>6</sup> aurkezten dizkigun heriotz tasa ofizialak errealitatearen azpitik daude. Egile honek %6,5eko heriotz tasa kalkulatu du 1833-35erako, %15,1eko 1853-56rako eta %7,6koa 1885rako. Euskal Herriari buruz ditugun datuak partzialak dira eta aldaketa handiak daude toki batetik bestera. Datu ofizialen arabera, Araban<sup>7</sup> 1834ean (79.000 biztanle inguru) 400 biztanle (%5,2) hil ziren koleraren ondorioz; 1855ean (95.000 biztanle inguru) 2.427 (%25,5), eta 1885ean (94.945 biztanle inguru) 303 (%3,2). Bilbon<sup>8</sup> 1854 eta 1855 urte bitartean (Bilboko biztanleria 1857an 17.923 bizilagunekoa zen) 523 pertsona (%32,7) hil ziren kolerak jota. Nafarroan egin diren ikerketetatik, Peraltakoak<sup>9</sup> (3.000 biztanle inguru 1834ean eta 3.400, 1884ean), Erriberan kokatua, ondorengo datuak azaltzen dizkigu:

<b>PERALTA</b>	<b>Kolerak hildakoak</b>	<b>Heriotza Tasa (‰)</b>
1834 (IRA-URR)	245	‰ 81.6
1855 (UZT-ABU)	207	‰ 62.7
1885 (UZT-ABU)	215	‰ 63.2

<sup>5</sup> GRANJEL 1986, 9-23.

<sup>6</sup> NADAL 1986.

<sup>7</sup> RAMOS 1986, 44 ta 132.

<sup>8</sup> VITORIA 1978.

<sup>9</sup> CAMPO; GASTÓN 1993, 89.

## Tuberculosis (XIX-XX. mendeak)

Industrializazio prozesu eta nekazarien mugimendu handiek gune industrial berrietara tuberkulosiaren inzidentziaren maximoa ekarri zuen 1780 eta 1880 urteen artean. Populazioaren pilaketa, egoera higieniko txarrak eta goseak hiri industrialen auzo pobreak gaixotasun honen, “peste zuria” bezala ezagutua, foku nagusia bilakatu zuten.

Euskal Herriko lurralderik industrializatuenean, Bizkaian, tuberkulosia endemikoa izan zen XIX. mendeko azken hamarkadetatik XX. mende erdialderarte. Bilbon izan zuen garapena, 1897ko urtarrilean lehen alea kaleratu zuen *Boletín Mensual de Estadística Sanitaria de Bilbao*-ari esker aztertu daiteke. Heriotz eragiletzat “Tuberkulosi pulmonarra, meningea eta besteak” hartuta, eta orduko garaiko Bilboko biztanleriataz ditugun datu zehatzgabeekin harremanuta (J. Gondrak kalkulatu duen “benetako populazio” hartu dugu), ondorengo tasak lortu ditugu:

<b>BILBAO</b>	<b>Biztanleria</b>	<b>TBCak hildakoak</b>	<b>Heriotza tasa (‰)</b>
1899	74.142	377	‰ 5.1
1900	79.410	361	‰ 4.5
1901	78.528	359	‰ 4.6
1902	78.166	329	‰ 4.2
1903	81.012	343	‰ 4.2
1904	85.878	352	‰ 4,1

Erietxeek, dispensarioak eta XX. mendeko lehen erdialdean egin ziren osasun-kanpaina anitzek, gaixotasuna kontrolatzea ahalbidetu zuten. Hala ere, benetako sendabide eraginkorrik 1944rarte ez zuten lortu, estreptomizina eta beste farmako batzuk agertu ziren arte.

## Espainiar gripea (1918-1919)


Gripe espainiarrak Frantzia eta Espainian eduki zuen eraginari buruz ditugun datuak kontrajarriak dira. Espainian gaixotasun honen ondorioz hildakoen kopurua 182.865 eta 257.082 artekoa dela esaten diguten era berean (biztanleriaren ‰8,7tik ‰12ra), Frantzia 137.200 eta 240.000 pertsona artean (biztanleriaren ‰3,9tik ‰7,3ra)<sup>10</sup> kokatzen dute gripeak jota hil zirenen kopurua. Desberdintasun hauek argitzeko Euskal Herriko epidemia sakonki aztertu dugu, Medikuntza Fakultateko ikasleen eta beste ikertzaile batzuen laguntzarekin. Iturri moduan lagin gisa hartu ditugun herrietako Eleiz Artxibo edo Artxibo Zibiletako heriotz-agiriak soilik erabili ditugu.

Pandemia honek gure demografian eduki zuen eraginaren erakusgarri dira XX. mendeko hilkortasuna jasotzen dituzten grafikak. Argi azaltzen dute gertakari

<sup>10</sup> PHILLIPS; KILLINGRAY 2003.


esanguratsuenak gripe espainiarra (1918), Gerra Zibila (1936-39) eta gerraostea izan zirela.

Oraintsu Euskal Herriko datu hauek jasotzen dituen liburu bat argitaratu dugu, bertan batzen dugun gripearen eta bere arnasketa konplikazioen ondorioz hildakoen kopurua %12,1eko heriotz tasa gordinen laburbildu daiteke. Hala ere, ezberdintasun handiak ikusi ditugu herrien artean; batzuetan hildakorik kasik egon ez bazen ere, beste batzuetan, Orozkon adibidez, heriotz-tasa %25,7ra heldu zen. Topatu dugun zifrarik altuena Etxarri-Aranatz-ekoa izan da, 1918ko urrian hilkortasuna %61,1era iritsi zelarik. Aztertu dugun Euskal Herriko laginaren hildakoen grafikan<sup>11</sup>, gehienak 1918ko udazkenean biltzen direla ikus dezakegu, 1918eko udaberrian eta 1919ko lehen hilabeteetan ia kasurik egon ez zelarik.



Epidemia honen bereizgarri nagusia batez ere gazteengan eragin izana da, hilkortasunik altuena 25 eta 34 urte bitarteko gizon-emakumeetan emanez.

<sup>11</sup> ERKOREKA 2006, 59-61.



Gaixotasun infekzioso akutu bategatik egon den azken osasun alarma nagusia izan zen gripe espainiarra. Gaurkotasun handia berreskuratu du aspaldi honetan hegazti gripea dela eta. Munduko biztanleriaren erdia baino gehiago astindu zuen bere garaian, ondorio sozio-ekonomiko itzelak sortuz; gure herrialdean populazioaren %50-55ari eragin zion, gripeak jota eurretario gutxi batzuk baino hil ez baziren ere.

## Epilogo

Gaixotasun infekziosoak Euskal Herrian eduki izan duten eragina ondoko taulan laburbildu daiteke (tuberkulosia ere barnean hartu dugu gaixotasun endemikoa izan arren). Ondoriorik argiena aurreko gizaldietan hilkortasun handia eragin duten gaixotasun kutsakorrek XX. mendean zehar kontrolpean hartzea lortu izan dela da. Gaur egun euren ondorioz hildakoen kopurua benetan txikia da.

EPIDEMIAK EUSKAL HERRIAN	Heriotza Tasa (%)
Peste beltza (1358)	%o 500
Biruela (s. XVIII)	%o 150
Tifus exantematikoa (1793-95)	%o 50
Kolera (1855)	%o 25,5 - 62,7
Tuberculosis (1900)	%o 4,5
Espainiar gripea (1918)	%o 12,1

2006ko Jardunaldietan ikusi genuen moduan, XX. mendean zehar gaixotasun infekziosoak eragindako hilkortasunaren jeitsiera esanguratsua, gaixotasun sozial ez infekziosoak igoera adierazgarri batekin batera eman da. Hau honela izanik, gaur egungo gizarteak gaixotasun kardiobaskularrak eta minbiziak ditu aurre egin beharreko arazo nagusiak.

## Bibliografía

- Báguena, M.J.: *La tuberculosis y su historia*. Barcelona, Uriach, 1992.
- Benedictow, O.J. *The Black Death 1346-1353. The Complete History*. Rochester (USA)-Woodbridge (UK), 2006.
- Bernabeu, J.: *Enfermedad y población. Introducción a los problemas y métodos de la epidemiología histórica*. Valencia, Seminari d'Estudis sobre la Ciència, 1995.
- Berthe, M.: *Famines et épidémies dans les campagnes navarraises à la fin du Moyen Âge*. Paris, Sfiéd, 1984, 2 vol.
- Boletín de Estadística Sanitaria del Ayuntamiento de Bilbao* (nº 1, enero de 1897).
- Campo, J.M.; Gastón, J.M.: *El cólera en Navarra. Peralta un ejemplo*. Tafalla, Altaffaylla, 1993.
- Daniel, T.M.: *Captain of Death: The Story of Tuberculosis*. Rochester, University, 1997.
- Erkoreka, A.: "Gaixotasun kardiobaskularrak historian zehar". *OEE 16. Osasun Jardunaldiak. Gaixotasun Kardiobaskularrak*. Vitoria-Gasteiz, 2006, 15-19.
- Erkoreka, A.: *La pandemia de gripe española en el País Vasco (1918-1919)*. Bilbao, Museo Vasco de Historia de la Medicina, 2006.
- Erkoreka, A.: "La pandémie de grippe espagnole sur la Côte basque (1918-1919)". *Bulletin du Musée Basque* 171, 2008,
- Granjel, L.S.: "Epidemia en Guipúzcoa durante la Guerra contra la Convención (1793-1795)". *Cuadernos de Historia de la Medicina Vasca* 4, 1986, 9-35.
- Kiple, F. (ed): *The Cambridge Historical Dictionary of Disease*. Cambridge, University, 2003.
- López Piñero, J.M.: *La medicina en la historia*. Madrid, La Esfera de los libros, 2002.
- Monteano, P.J.: *La ira de Dios. Los navarros en la Era de la Peste (1348-1723)*. Pamplona-Iruña, Pamiela, 2002.
- Nadal, J.: *La población española (siglos XVI al XX)*. Barcelona, Ariel, 1986.
- Naphy, W.; Spicer, A.: *The Black Death and the History of Plagues (1345-1730)*. Stroud, Tempus, 2000.
- Phillips, H.; Killingray, D. (Ed.): *The Spanish Influenza Pandemic of 1918-19*, London, Routledge, 2003.
- Ramos, P.M.: *El cólera en Alava*. Vitoria-Gasteiz, Foru Aldundia, 1986.
- Relation historique de la peste de Marseille en 1720*. Cologne, Chez Pierre Marteau, 1721.
- Rojo, A.; Riera, J.: *Epidemias, hospitales y guerra en Guipúzcoa y Navarra a finales del siglo XVIII (1793-1795)*. Salamanca, Instituto de Historia de la Medicina, 1983.
- Thillaud, P.L.: *Les maladies et la médecine en Pays Basque Nord a la fin de l'ancien régime (1690-1789)*. Genève, Librairie Droz, 1983. p. 138.
- Villanueva, A.: *Historia social de la tuberculosis en Bizkaia (1882-1958)*. Bilbao, Foru Aldundia, s.a.
- Vitoria, M.: *Epidemias de cólera en Vizcaya en el siglo XIX*. Bilbao, La Gran Enciclopedia Vasca, 1978.
- Werner, A.; Werner, H.; Goetschel, N.: *Les épidémies. Un sursis permanent. s.l.*, Atlante, 1999.